

AZPEITIA

30

BADATORRELA
MANTANGORRI



**ONDO PASATU
FESTAK!**

Azpeitia
Denontzat





Nik, zuk
eta guk

**GUKAKIDEENTZAT
PREZIO BEREZIAK**

**IZAN GUKA,
JANTZI GUKA!**





Iritzia
Oihane Iparragirre

Luxua

Sanjuandegiko festak auzotarrak garenon arimaren isla dira. Txupinazoak hasiera ematen dio denok itxaroten dugun asteari, gure 'Aste Nagusi' propioari. Auzoa gorritz janzten da Mantangorriren iritsierarekin, eta ilusioz beteta hasten ditugu jaiak. Egia esaten hasita, jarraitu ere ilusioz eta gogoz egiten dugu festek irauten duten bitartean...

Guztionezko lekua izaten da Sanjuandegiko festetan; izan ere, urtero-urtero oparoa izaten da egitaraua: trikitia eta areto dantzak uztartzen ditu festak, tradizioa eta parranda eskutik doazela. Umeak, gazteak eta helduak izaten dira kalean, denak giro ederrean murgilduta. Lo gutxi eta barre asko.

Eta gozamenerako aukera zabal horren artean, bada xehetasun txiki bat. Tabu moduko bat izanagatik ere, eragin izugarria duena festetan: zeinen ederra den auzoko festetan kaka etxeko komunean egin ahal izatea. Horrek ez du preziorik! Beste auzo, herri edo hirietako festetan ilaran zain egon behar izaten da, bainugelara sartzea lortu eta

presaka ibili behar... Zenbat alditan gertatu izan zaigun hori lagunei. Hemen ez, gure auzoa delako. Etxera joan eta lasai egon zaitezke bainugelan eserita, inolako presarik gabe. Beno, presa bakarra izaten da: berriro kalera irtetea, festan jarraitu ahal izateko. Hori bai dela luxua!

Festei lotuta, bada hitzez azaldu ezin den sentimendu bat: pertenezia sentimendua. Sanjuandegikoa izatea barruan daramagun zerbait da, azaldu ezin den lotura bat. Nire kasuan, adibidez, badira datuz adierazi daitezkeenak. Izan ere, ezkontza eguna jartzeko orduan, ez zen eztabaidarik izan: Sanjuandegiko festak ziren horretarako da-

Sanjuandegikoa izatea barruan daramagun zerbait da, azaldu ezin den lotura bat

Eutsi diezaiogun gureari, gure moduan eta gure gertuko jendearekin

tarik onena. Eta horrela egin genuen. Gainera, lagunek os-tiralero egiten dugun poteoa kaletik auzora mugitu dugu. Bizitzeko tokia aukeratu behar zenean ere, gauza bera gertatu zen: auzoan geratzea izan zen gure hautua, *gure barriyuen*. Luxuan bizitzearen hautua egina dugu.

Hori guztia da, azken batean, Sanjuandegiko festen benetako magia: ez direla soilik jai batzuk. Topalekua dira, oroitzapenen fabrika bat, belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren zerbait. Urtero errepikatzen diren ohiturek eta kaleetan sortzen diren momentu txikiek egiten dute auzo hau berezi. Eta urteak pasatu arren, txupinazoa entzutean barrua dardarka jartzan bazaigu, seinale ona da: Sanjuandegi bizirik dagoela esan nahi du.

Beraz, aurten ere, kaleak bete ditzagun algaraz, musikaz eta auzo harrotasunez. Eutsi diezaiogun gureari, gure moduan eta gure gertuko jendearekin. Izan ere, festak amaitzen dira, baina Sanjuandegikoa izatea ez da inoiz bukatzen.

Gora Xanjuandei!






ondo pasatu auzoko festak!

makibar Euskal Herria, Kalea, 31
943-08 06 00

LASA GOZOTEGIA

Ondo pasatu festak!

Salbe Auzoa 14 • AZPEITIA • 943-81 25 39

K **LANEKO ERROPAK**

SALBE 24
20730 AZPEITIA

943 02 58 61
info@urkizu.net
650 75 61 79

URKIZU

Ondo pasa XANJUANDEIKO festak!!

LAGUNAK

Urbitearte, 7 behea • AZPEITIA
943-81 37 87 • 747 40 34 10
www.electricidadlagunak.com • elagunak@gmail.com

COVIRAN
ONDO PASATU JAIK!

Salbe auzoa 22 - Azpeitia



Araia Lazkano eta Denis Aizpuru.

«Herriko eragileek eta taldeek beti dute tokia Sanjuandegiko festetan»

Araia Lazkano eta Denis Aizpuru

XJ Auzolaneaneko kideak

Hilabeteetako lanaren ondoren, hastear dira Sanjuandegiko festak. Bi astez askotariko ekintzak izango dira auzoan, XJ Auzolanean festa batzordeak antolatutako egitarauari esker.



Dagoeneko prest duzue jaie-tako aurtengo egitaraua. Zer nabarmenduko zenukete?

DENIS AIZPURU: Urtez urte egitaraua antzekoa izaten da; aldaketa txiki batzuk egiten ditugu. Festak amaitutakoan balorazioa egiten dugu, ekitaldiek izan duten harrera edo arrakasta aztertzeke. Jende gutxi erakarri duen ekitaldiren bat egin baldin bada, formatuari edo emanaldiari buelta bat ematen saiatzen gara. Izan ere, urtez urte gauzak hobeto egitea da helburua.

ARAI LAZKANO: Beti iristen zaizkigu proposamen berriak, eta horiek ere aztertzen ditugu. Ondo irudituz gero, egitarauan sartzen ditugu ekarpenak.

D.A.: Iaz, adibidez, Yonki Riders taldeak umeen bizikleta lasterketak egitea proposatu zuen, eta arrakasta handia izan zuen egitasmoak; gurasoak eta parte hartzaileak oso gustura agertu ziren. Ondorioz, aurtengo egitarauan ere sartu ditugu probak.

Aurtengo jaiei begira jarrita, zer berrikuntza edo aldaketa izango dira egitarauan?

A.L.: Txakolin dastaketa egingo dugu aurten lehen aldiz. Normalean kalean egin ohi izan da, baina aurten, datak Sanjuandegiko festekin bat egiten zenez, auzoko festetan egiteko aukera zegoela esan zigun Azpeitiko Udalak. Taldeak eskara aztertu eta oso ondo hartu zuenez, egitarauan sartu dugu ekitaldia.

D.A.: Bestalde, zezena izango dugu igande arratsaldean. Azken urteetan, Ongi Etorri jate-txearen atzeko belardian izan da zezena. Leku horretan, ordea, aisiialdirako parke bat jarri du udalak, eta lekuz aldatu beharra zegoen ekitaldia. Zezen ikuskizuna egiteko hainbat toki aztertu ondoren, Jose Antonio Agirre plazara itzultzea erabaki genuen.

Azken urteetako ohiturari jarraituz, Ume Egunarekin hasiko dira festak. Aurten ere arrakasta izan al du egun horretarako izen-emateak?

D.A.: Festen hasiera eguna izan ohi da, eta izugarritzko arrakasta izaten du urtero.

A. L.: Muga jarri gabe dugun arren, 250 eta 300 ume inguruk ematen dute izena urtero. Askok dira.

Jaietako ekitaldi eskaintzan nabarmena da herriko taldeen

eta eragileen parte hartzea. Saiakera berezia egiten al duzue hori horrela izan dadin?

D.A.: Sanjuandegikoak festa herrikoiak direla esan dezakegu, eta horretarako saiakera berezia egiten dugu. Egitaraua



«Argi ikusi da azken hiruzpalau urteetan gorakada nabarmena izan dutela jaiek»

«Herritar askok txosnetako txandak egiteko beharra izaten dugu»

«Horrenbeste hitzordu dituen egitaraua izanik, akatsak gertatu egiten dira»

begiratuz gero, egunero ageri da herriko norbait edo talderen bat ekitaldietan: lagomak ikuskizuna eskaintzen du Umeen Egunean, musika taldeen kontzertuak, parrillada Kontseilu Sozialistak prestatzen du... Herriko taldeek eta eragileek beti dute tokia Sanjuandegiko festetan.

Egun batzuk besterik ez dira falta festak hasteko. Zer aurreikuspen dituzue aurtengorako?

A.L.: Ondo joan daitezen nahi dugu. Urtero izan ohi den jendetza espero dugu, herritar ugari izaten baitira Sanjuandegiko festak iristeko zain-zain. Uda hasieran izaten dira jaiak, eguraldi onak ere hasita izaten dira ordurako, eta parranda gosea nabaria izaten da. Egitarauak urtero zerbait berria eskaintzen du, eta ekitaldi aukera zabala izan ohi da.

D.A.: Mugarik ez dute Sanjuandegiko festek. Gero eta ospe handiagoa dute; argi ikusi da azken hiruzpalau urteetan gorakada nabarmena izan dutela jaiek. Gorakada horrek, baina, jaietan lan gehiago egin behar izatea eta jendearengan espektatiba handiagoak sortzea eragiten du.

XJ Auzolaneanek hilabeteetako lana izaten du festak prestatzen, baina festa egunetara-

ko ere beharko duzue laguntza, ezta?

D.A.: Herritar askok txosnetako txandak egiteko beharra izaten dugu. Mesede asko eskatzen ditugu; kuadrillakoei eta lagunei, batik bat. Dena den, herriko eragileei ere eskatzen diegu txandak egiteko, eta eragile horiei, herriko gainerako festetan, mesede itzultzen diegu trukean.

Belaunaldi berriak indarrez sartu dira Sanjuandegiko festa batzordean. Lana erraztu al du horrek?

A.L.: Zenbat eta esku gehiago izan laguntzeko, are pertsona gehiago izaten dira lana banatu ahal izateko. Ardurak banatu egiten ditugu, eta kide gehiago izanez gero, lanak hobeto egiten ditugu. Batzordeko kide denek egiten dute ekarpena, gehiago edo gutxiago.

Taldea handitzeak hobeto antolatzeak aukera ematen al dizue?

D.A.: Astean behin biltzen gara batzordeko kideok, eta han banatzen ditugu lanak eta ardurak. Adibidez, taldeak erabakitzen badu Araia arduratuko dela dantzez, hark bere gain hartzen du dantza ekitaldiaren kudeaketa osoa. Eta horrela egiten dugu egitarauko ekintza denekin; hitzordu bakoitzak bere arduraduna izaten du.

Dena prest duzue, festarako gogoz al zaudete?

D.A.: Gogoz gaude, bai. Azaroan hasten gara festen antolakuntzarekin. Kontzertuak lotzea izaten da lehendabiziko egitekoa, horrexek ematen baitu lan gehien. Kontzertuak itxitakoan, urtarrilean biltzen gara berriro, eta martxotik aurrera, festak iritsi arte, astero egiten ditugu bilerak.

A.L.: Azken asteetan beharren bueltan egiten ditugu bilerak, eta egia esan, azken txanpan nabaritzen da nekea.

Zer esango zeniekete festaz gozatzera Sanjuandegira joango diren herritarrei?

D.A.: Jaiaz errespetuz goza dezatela, pertsona guztiek baitute ondo pasatzeko eskubidea.

A.L.: Ondo pasatzeko eta pazientzia izateko. Horrenbeste hitzordu dituen egitarau izanik, akatsak gertatu egiten dira, eta horietako batzuk edo asko ez dira gure esku egoten edo ez dira gure ardura izaten. Gu boluntarioak gara, eta hori kontuan hartzea nahiko nuke.

Ondo pasatu festak!

Garoa

Euskal Herria Kalea 33
943-81 23 88

adats

Ileapaindegia
estetika

ONDO PASATU JAIK!

Salbe auzunea 32 behea
20730 AZPEITIA
adats azpeitia

Telf. 943 81 39 90

Loiola

Ile-apaindegia

Ondo pasatu festak!

943-90 24 58

inka
gozotegia

Ondo pasatu festak!

Euskalerrria 31 · Azpeitia · 943-81 39 47

JOSTALDI

KIROLAK

ONDO PASATU JAIK!

Euskalerrria, 33 • 943-15 16 39
www.jostaldikirolak.com



ondo pasatu auzoko festak!

Barrenetxe 7
943-1515 53
AZPEITIA

izaro

Kafe Bar

Ondo pasatu jaiak!

Salbe auzoa 34 - Azpeitia

URBISTONDO MARGOAK

ONDO PASATU JAIK!

Salbe Auzunea 35 behea • 20730 AZPEITIA
943-81 57 81
urbistondomargoak@gmail.com

HIRU ARGENTINARRAK

ERREFORMA INTEGRALAK

ONDO PASATU FESTAK!

Salbe auzunea, 15 • 20730 AZPEITIA
Tel. 943-50 34 20 / 626 82 47 78



SOMOZA ARRANDEGIA

Ondo pasatu jaiak!

Sanjuandegi auzunea, Salbe 21
943-81 39 91 • AZPEITIA



Gorritz jantzita hasiko dituzte festak, beste behin, Sanjuandegin

Duela hamalau urte ekin zioten Sanjuandegiko Umeen Eguna antolatzeari, eta, orduetik, auzo horretako festetako ekintzarik arrakastatsuenetakoa bilakatu da. Aurten, HH 4-5etik LH 3-4ra bitarteko haurrek maiatzaren 30ean izango dute festa batzordeak prestatutako egitarauaz gozatzeko aukera.

-NORA AIZPURU

Amona mantangorriren jaitsierak ematen die hasiera ofiziala Sanjuandegiko festei, baina egun handi hori baino astebete lehenago ere, auzoa kolore gorritz jantzen da. Umeen Eguna egiten hasi ziren duela hamalau urte, eta gaur egun festetako ekintzarik arrakastatsuenetakoa bilakatu da. Aurten, maiatzaren 30ean ospatuko dute egun hori, eta Haur Hezkuntza 4-5etik Lehen Hezkuntza 3-4ra bitarteko haurrek izango dute zertaz gozatua. Izan ere, XJ Auzolanean festa batzordeak egitarau oparoa prestatu du Umeen Egunerako.

12:45ean, taldeetan banatuko dira Umeen Egunean parte hartuko dutenak, eta orduan ekingo diote umeek hain gustuko duten egunari. Hainbat jolas egingo dituzte auzo osoan zehar, eta ondoren, inda-





rrak berreskuratzeko bazkaria izango da guztientzat, Jose Antonio Agirre plazan. Arratsaldean, eguna borobiltzeko, haur zein helduentzat ikuskizuna eskainiko du lagomagok.

Haur ugari animatu ohi dira urtez urte Sanjuandegiko Umeen Egunean parte hartzera, eta antolatzaileek adierazi dute sekulako arrakasta izan ohi duela egun horrek. Hastapenak gogoratu ditu Iker Etxeberria XJ Auzolanean festa batzordeko kideak: "Gaztetxoek festen barruan parte hartzeko espazioak falta zituztela ohartu ginen, eta umeen aisialdirako eta gozamenerako alternatiba baten bila hasi ginen. Aurretik ere antolatzen ziren umeentzat jolasak festetan, baina oso laburrak eta urriak ziren, eta, beraz, ez zituzten haien beharrak asetzen". Horregatik, 2012an, egun osoko egitaraua osatu zuten, 3 urtetik 12 urtera bitarteko umeei zuzenduta. "Urte hartako Umeen Egunak izandako arrakastak argi erakutsi zuten zeinen beharrezkoa zen umeen aisialdiari festetan lekua egitea; ia 300 hurrek parte hartu zuten lehen edi-

zio hartan", erantsi du Etxeberriak.

Geroztik, parte hartzaile kopuruak gorabehera batzuk izan baditu ere, azken urteetan 300 ume inguru elkartu dira auzoan, jolasetan zein bazkarian. Hala ere, kontuan hartzekoa da 2022az geroztik adin tartea mugatu egin behar izan dutela: "Izan ere, gehiegizko parte hartzaile kopurua ez zen bateragarria auzoko zein lantaldeko azpiegiturekin eta baliabideekin". Beraz, adin tartea murriztuta egiten dute gaur-gaurkoz Umeen Eguna, baina antolatzaileak gustura daude hartutako erabakiarekin. "Adin tartea txikiagoa izan arren, hasieran baino ume gehiago animatzen dira", adierazi du Etxeberriak.

Oinarrian, auzolana

Irribarreak, esku zikinak, kamiseta gorriak, laguntasuna eta elkartasuna dira, besteak beste, Umeen Eguna definitzen duten kontzeptuetako batzuk. Baina horiek guztiak lortu ahal izateko, beharrezkoak dira beste oinarri batzuk ere XJ Auzolaneaneko kidearen ustez: "Auzolana, borondatea, antolakuntza,

denbora eta konpromisoa". Izan ere, egun hori ospatu ahal izateko, XJ Auzolanean batzorde-

2022az geroztik adin tartea mugatu egin behar izan du XJ Auzolaneanek

ko kideez gain, funtsezkoa izaten da begiraleen zein auzoko hainbat pertsonaren laguntza. Etxeberriaren arabera, egindako lanaren emaitza da haurrak maiatzeko azken astebururako irrikaz egotea. "Hori ez da kasualitatea", dio.

Lehen ediziotik urteak pasatu diren arren, antolatzaileen asmoak eta ilusioak berbera izaten jarraitzen du: "Etxeko txikiak protagonista sentiaraztea". Festetan atzemandako hutsune edo behar batetik sortu zuten egunak, gaur egun, bizpoza eta alaitasuna ekartzen dizkio auzoari festen atarian. Beraz, maiatzaren 30ean, Sanjuandegi ez da umeen jolastokia soilik izango, auzo baten bizitasunaren erakusle hain batzuk.

ONDO PASATU FESTAK!

ALABIER
ITURGINTZA

Urbitarte 1 behea **943-81 11 79** • linterneria@alabier.com

AITZAKI
KIROLAK

ONDO PASATU JAIK!

Jose Antonio Agirre Plaza 4
943-15 07 38 - AZPEITIA

Julio Urkijo Hiribidea 36
943-53 27 70 - AZKOITIA

Ongi Etorri
J A T E T X E A

Ondo pasatu festak!

Salbe auzunea 21 • 943-15 08 69

50 urte
baino gehiago
zurekin

La salve Nº 11 Bajo
20730 Azpeitia
943813298
eizaguirrebeatriz@gmail.com

INTXAUSTI

Salbe 33 • AZPEITIA • 943-81 04 89

Ondo pasatu jaiak!




ONDO PASATU JAIK!

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea 34 • Tel.: 943 15 16 40
Larrialdiak: 688 69 29 51

GOI ATZ
ILEAPAINDEGIA

salbe auzuenea 36
20730 azpeitia
943-810408

ONDO PASATU FESTAK!

ERROTAUNDI
Okindegia

gozatu auzoko festez!

Euskal Herria Kalea 34 • 943-81 61 79

ondo pasatu festak!

GU

Urbite 4
AZPEITIA
943-81 03 08

Jim Clark
TABERNA

ONDO PASATU FESTAK!

Euskal Herria Kalea 33
943-08 00 89



Auzotarrak dantzan, maiatzaren 15eko bertso poteoan.

Giro ona urte osoan bizirik mantentzeko sarea ehuntzen

XJ Auzolanean festa batzordeak ez du bere jarduna festa egunetara mugatu nahi, eta azken hilabeteetan hainbat ekintza antolatzen ari da auzoko giroa sustatzeko. Besteak beste, Erniarraitz eta YK Riders eragileekin elkarlanean ari da, auzotarrei aisialdirako aukerak eskaintzeko.

Urtero milaka lagun erakartzen dituzten festak antolatzeagatik da ezaguna XJ Auzolanean festa batzordea, baina azkenaldian bestelako erronka bati heldu dio: auzoa urte osoan bizirik mantentzeko ahalegina egiten ari da taldea. Batzordeko kideek ez dute beren jarduna festa egunetara mugatu nahi, eta hori horrela, hainbat ekintza antolatzen hasi dira azken hila-

beteetan, auzoko harremanak sendotzeko eta giroa sustatzeko. Bide horretan, ezinbesteko bidelagunak aurkitu dituzte: herriko hainbat eragile. Besteak beste Erniarraitz eta YK Riders taldeekin elkarlanean arituta, auzoa elkargune bihurtu nahi dute, belaunaldi eta interes desberdinetako herritarrak batuko dituen.

Festa batzordeko kide Eñaut Kerejetak azaldu duenez, garai batean ohikoa zen festa egunetatik kanpo ere ekintzak anto-

latzea auzoan, baina urte luzez halakorik egin gabe egon ondoren, ohitura hori berreskuratzea erabaki zuten. "Kultur ekintzak edota umeentzako jarduerak antolatzeak ohitura zuten aurrez izandako festa batzordeek, eta azken urteetan festetara mugatu dugu egitaraua. Horregatik, bestelako egunak edo ekintzak antolatzen hastea garrantzitsua iruditu zitzaigun". Iaz antolatu zuten lehendabiziko bertso poteoa, eta aurten errepikatu egin dute; duela hila-



eta kanpoko bertsolariak ekarri beharrean, egokiagoa ikusi zuten herriko bertso eskolako kideei ematea kantatzeko aukera. Erniarraitzen ere oso ondo hartu genuen ideia". Hala, hitzordurako bertsolariak eta trikitalariak lotu zituzten, eta Sanjuandegin barrena aritu ziren bertsolariak kantuan: "Garbi genuen ez genuela nahi bi bertsolari kantuan aritzea une oro. Jendeari bertsoan aritzeko aukera eman nahi genion, nahiz eta animatzen zirenak bertsolariak ez izan. Hala, bertso eskolako bospasei kide elkartu ginen txandaka abesteko, eta tartetean, ikusleei parte hartzeko aukera eskaintzen genien mikrofonoa pasatuz".

Formatu bera errepikatu dute aurten, eta bi urtetan "oso ondo" erantzun du auzoak, Gesalagaren arabera; Sanjuandegik erakutsi du plaza bertsozalea dela. "Iaz ilusioz joan ginen, eta oso ondo hartu gintuzten. Aurten, espektatiba handiak genituen, eta bete da espero genuena. Bestelako poteoetan egoten ez den giroa sortzen da ekintza honean, eta inoiz ikusi ez ditugun pertsonak animatu ziren kantatzera. Ikusle gisa ere jende berria zegoela nabari zen, eta hori ederra da guretzat ere, gusturago aritzen garelako".

YK Riders taldeak ere iaz antolatu zituen lehendabizikoz haurrei zuzendutako bizikleta lasterketak auzoan, festa batzordearen oniritzia jaso ondoren. Ibilbideak zehaztu, bidegurutzeak zaindu eta sariak banatu zituzten, eta parte hartzaileak zein haien gurasoak oso gustura gelditu ziren. Iazko arrakasta ikusirik, maiatzaren 31ko arratsaldean berriro egingo dute bizikleta lasterketa Jose Antonio Agirre plazaren inguruan. "Elkarlanerako prest gaude beti. Aurten ere Sanjuandegiko festetan parte hartuko dugula ikusita, hurrengo urtera begira zer berrikuntza

egin ditzakegun aztertzen hasiak gara. Gainera, jakitun gara horrelako ekintzak bizikleta edo gurpil gaineko kirola sustatzeko ondo etortzen zaizkigula. Gure kirolak ez du beste kirol batzuek izan dezaketen ospea, eta oso gustura gaude zaletasuna hedatzeko bide berriak jorratzeko aukera eman digutelako. Ea aurten ere jende asko animatzen den; gu bertan izango gara laguntzeko", adierazi du YK Riders taldeko Asier Leonek.

Prroposamenei irekita

Azken hilabeteetan sustatu dituzten hainbat jardueraren bitartez, auzoko giroa indartu eta herritarren arteko harremanak estutu nahi izan dituzte: "Auzotarren parte hartzea bilatu dugu ekintza denetan, eta orain arte izan duten harrera ona ikusirik, aurrera begira berdin jarraitzeko asmoa dugu. XJ Auzolanean festa batzordea da, ordea, eta gure jarduna festetara bideratzen da, batik bat. Orokorrean, urte amaieran hasten gara festa antolatzen, eta, beraz, ezin dugu urte guztian ekintzak antolatzen aritu. Baina argi esan nahi dugu proposamenak jasotzeko irekita gaudela beti, izan eragileenak edo norbanakoenak proposamen horiek. Gu ahal den heinean horiek aurrera ateratzen saiatuko gara", esan du Kerejetak.

Iazko arrakasta ikusirik, maiatzaren 31ko arratsaldean berriro egingo dute bizikleta lasterketa

bete batzuk, berriz, kantu afaria egin zuten Iturri elkartearen.

Bertsoak eta bizikletak

Elkarlanak aberasteko balio duela sinetsita, Sanjuandegiko festa batzordeko kideek Erniarraitz eta YK Riders taldeekin indarrak batu dituzte, auzoan dinamika berriak sortzeko asmoz. Erniarraitz bertsozale elkartearekin iaz jarri ziren harremanetan, Suhar Gesalaga elkarte horretako kideak azaldu duenez: "Bertso poteoa antolatu nahi zuten festa batzordekoek,





Artetxe-Bastida Farmazia

Azal-analisiak dermo aholkurako
Arrisku kardiobaskularra neurtzea
Pastileroa prestatzea

@artetxebastidafarmazia
688 69 98 88 - 943-81 19 49
Urbite 3, Azpeitia



Artetxe-Bastida Farmazia

2019/2192
61/21 erregistro zb



Osinazpi

Ondo pasatu festak!

Jose Antonio Agirre plaza 6-7 · AZPEITIA
943-02 68 60
www.osinazpi.eus · info@osinazpi.eus



NEREA ARANBARRI

OSTEOPATIA ZENTROA

ONDO PASAU FESTAK!

Euskal herria, 34 - behea • AZPEITIA
644 45 75 36 • nerearanbarri@gmail.com



Rocha's Chopper

Ondo pasatu jaiak!

Urbite 3, Azpeitia

ZUFOIN

PODOLOGOA AZPEITIA

ONDO PASATU JAIK!

Podologia 313 Kol. Zkia.

943-81 00 72 • 608 83 86 37



Auzoko plazara bueltan da zezena

Sanjuandegiko festek tradizioa eta berrikuntza uztartzen dituzte urtero, eta bermatuta izaten dira auzotarren parte hartzea eta giro bikaina. Jaietako egitarauaren barruan, bada urtez urte presentziari eutsi dion ekintza bat: zezen ikuskizuna. Aurten ere ez da faltako, baina aldaketa esanguratsu batzuekin iritsiko da kokapenari eta formatuari dagokienez.

-NORA AIZPURU

Urteak joan eta urteak etorri, bada Sanjuandegiko festetako egitarauan hutsik egin ez duen ekintza bat: zezen ikuskizuna. Aurten ere zezenaz gozatzeko aukera izango dute auzotarrek, baina pare bat berrikuntzarekin iritsiko da; alde batetik, azken urteetan ez bezala, zezen handiak izango dira protagonista; bestalde, igande arratsaldean egingo dute ekitaldia, 16:00etatik 17:30era, eta hesiz babestuta egongo da Jose Antonio Agirre plaza. Aurten ere Biri gandutegiko zezenak izango dira Sanjuandegin.

Xabi Iturralde da Sanjuandegiko zezenaren bueltako

ekitaldiaren antolakuntzaz arduratzen den XJ Auzolanean batzordeko kidea, eta hark aldaketen arrazoiak aletu ditu: "Hasiera batean, urtero legez, igande goizean zezen txikien ikuskizuna egiteko asmoa genuen, baina zezen txikien bueltako ekitaldien erregularizazio prozesu motelaren ondorioz, ezinezkoa zitzaien ekintza antolatzea". Egoera horren aurrean, auzora zezen handiak eramateko ideari heldu zion batzordeak. Ohituraz, igandean, festetako azken egunean, goizean goiz izan ohi da zezena Sanjuandegin, gaupasa egiten dutenen goiza "alaitzeko eta entretenitzeko" asmoz. Ikuskizun horretan, azken urteetan, zezen

txikiak erabili izan dituzte, horiek jendea "parte hartzera bultzatzen" dutelako eta horrek festa giroari eusten laguntzen duelako. Hala azaldu du Denis Aizpuru XJ Auzolanean festa batzordeko kidea.

Iaz, ordea, bigantxen ikuskizuna prestu zuen batzordeak, eta parte-hartzea "nahiko eskasa" izan zela ikusirik, goizean zezen handien ikuskizuna antolatzeko aukera alde batera uztea erabaki zutela esan du Aizpuru: "Zezen ikuskizuna arratsaldera aldatuta, jende gehiago hurbilduko delakoan gaude".

Urte luzez

Garai bateko ohiturak bueltan dira, beraz, Sanjuandegin, nahiz eta ekitaldiaren ordua

eta lekua bestelakoak izango diren. Auzoko festen nortasuna mantenduko duen eta horiei amaiera borobila emango dien hitzordua izango da zezenekin igandean egingo dutena, eta zezenaren tradizioari kapitulu berri bat gehitu nahi diote. Izan ere, Sanjuandegiko festen ibilbide luzean, askotariko zezen

Igandean egingo dute ekitaldia, 16:00etatik 17:30era, Jose Antonio Agirre plazan

Festen ibilbide luzean, askotariko zezen ikuskizunak antolatu izan dituzte

ikuskizunak antolatu izan dituzte; hasierako urteetan, esaterako, sokamuturra zen auzoko ekitaldi izarra.

Urte hainbatetako egitarauak aztertuz gero, baina, ikus daiteke zezenaren bueltako ekitaldiak ez duela hutsik egin; larunbatean zein igandean, ordu batean ala bestean, toki batean edo bestean, beti egin izan dute zezen ikuskizuna: haurrentzako zezen txikien eta pottoken ekitaldia, suzko zezena edo errektorien uztai txapelketa dira horren erakusle.

Ohituraren sokari segida emango dio aurtengo ekitaldiak: lehen aldiz igande arratsaldean Jose Antonio Agirre plazan izango da zezen handien ikuskizuna.



Zezena 2019ko Sanjuandegiko festetan.

NIK

hik, hark, denok

GUKA EGITEN DUGU



Garazi Olaizola / Pilates
irakaslea

Azpeitia

**ZUK ERE
EGIN GUKA**
egin bazkide

Guka independentea da eta komunitatean du oinarria. Herritik eta herriarentzat sortua izanik, aurrera egiteko, guztion babesar eta lankidetzaren ezinbestekoak dira.

GUKA

Eskaneatu QR-a, eman zure babesar





Hiru ume iazko dantzari txikiak emanaldian.

**LAGUNTZAILEAK:**

- Lasa gozotegia
- Iturria ile apaindegia
- Intxausti harategia
- Karmiña arraindegia
- Adats ile apaindegia
- Zutoin podologia
- A&M fisioterapia eta estetika
- Coviran denda
- Makibar fruta eta abar
- Haizea arropa denda
- Iris mertzeria eta drogeria
- Eguzki belardenda
- Goiatz ile apaindegia
- Txintxu gozotegia
- Errotaundi okindegia
- Aitzaki kirolak
- Loiola ile apaindegia
- Alabier iturgintza
- Gu ile apaindegia
- Asun ile apaindegia
- Lagunak elektrizitatea
- Artetxe Bastida farmazia
- Urkizu laneko arropa
- Urbistondo margoak
- Inka kafetegia
- Mendata estudio grafikoa
- Marijose ile apaindegia
- Anare ile apaindegia
- Irede estetika
- Labe Txiki
- Ekain albaitaritzza
- Jostaldi kirolak
- Loteria denda
- Barber
- Petra estankoa
- Sanjuandegiko bizartegia
- Ukabi Group
- Uhain fisioterapia
- Ene estudioa
- Mimatz txakurren ile apaindegia
- Urola Erdiko Kontseilu Sozialista
- Haujijjai Batzordea
- Urrestillako Festa Batzordea
- Vivero elkarte
- Loiolabide Zahar elkarte
- Iturri elkarte
- Azpeitiko Udala

AGENDA**Maiatzak 30, zapatua****Umeen Eguna**

- 12:45.** Umeen Egunean izena eman duten haurrak begiraleekin elkartuko dira, eta jarraian, jolasak egingo dituzte.
- 14:30.** Umeen auzo bazkaria.
- 16:15.** Iagomagoren ikuskizuna.

Maiatzak 31, igandea

- 16:30.** Umeen bizikleta lasterketak.

Ekainak 3, asteazkena

- 21:00.** Bertso afaria, Sanjuandegiko Baigera tabernan. Andoni Egaña eta Iker Zubeldia bertsolariak ariko dira kantuan.

Ekainak 4, osteguna

- 19:00.** Kantujira eta pintxo-potea.
- 21:00.** Mus Txapelketarako izen ematea.
- 22:00.** Mus Txapelketa, Ongi Etorri erretegian.
- 22:00.** Iluntze musikatua Jim Clark eta Garoa tabernen atarian: Edu Zardoya eta Mala Ruina taldeak.

Ekainak 5, ostirala**Gazte Eguna**

- 15:00.** Kafea eta auzolana.
- 18:45.** Elkarretaratzea, Palestinarekin elkartasunez.
- 19:00.** Mantangorriren ongietorri ekitaldia, Jose Antonio Agirre plazan.

- 19:05.** Kalejira buruhandiekin, erraldoiekin eta trikitilariekin.
- 21:00.** Gazte afaria.
- 23:00.** Areto dantzen emanaldia.
- 23:00.** Kontzertuak karpan: Istilu, Verrater eta Laket. Gainera, herriko DJak txosnan: Traka eta matraka, Enesound eta Meritron.

Ekainak 6, zapatua**Auzo Eguna**

- 10:30.** Xake txapelketa.
- 11:00.** Judo erakustaldia.
- 12:00.** Txakolin dastaketa.
- 13:00.** Udal Musika Bandaren kontzertua.
- 15:00.** Auzo bazkaria. Ondoren, bingoa.
- 18:00.** III. Trikifree trikiti emanaldia.

- 18:30.** Txokolatada.
- 19:00.** Erraldoiekin eta buruhandiekin kalejira, eta Hamarru elektrotzaranga.
- 20:00.** Parrillada.
- 22:00.** Kontzertuak: Lukiek eta Ezpalak.
- Ondoren,** Tintz DJa karpan, eta herriko DJak txosnan: House one, Larre, Oier eta Erlo.

Ekainak 7, igandea**Resaka Eguna**

- 11:00.** Artisau azoka.
- 11:30.** Dantzari txikiak emanaldia.
- 16:00.** Zezena, Jose Antonio Agirre plazan.
- 18:00.** Herri kirol erakustaldia.
- 19:45.** Zozketa.
- 20:00.** Mantangorriren agurra.



MIMATUZ
TXAKURREN ILEAPAINDEGIA
ONDO PASATU JAIK!

